



IDOIA NIK, MENDIA CUEVA-K, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIOKO SAILBURU ETA EUSKO JAURLARITZAKO IDAZKARI NAIZENAK

ZIURTATZEN DUT:

Eusko Jaurlaritzak, 2010eko azaroaren 30ean egindako bileran, besteak beste, erabaki hau hartu zuela:

ERABAKI-PROPOSAMENA, 2009-2013 LEGEGINTZAKO EGUTEGIAREN SEIHILEKO JARRAIPEN-DOKUMENTUA ONARTZEKO DENA. (2010EKO MAIATZAREN 17TIK AZAROAREN 17RAKO ALDIA). (EXP. 2010/01174) (A/20100409)

2009ko azaroaren 17an, Gobernu Kontseiluak IX. Legegintzaldiko (2009-2013) Legegintza Egutegia onartu zuen.

Gobernu Kontseiluaren Akordioak ezarritakoaren arabera, Jaurlaritzako sailek sei hilean behin memoria bana bidali behar diote Lehendakaritzako Idazkaritza Nagusiari, Legegintza Egutegian ezarritako konpromisoak betetzeari edo, hala badagokio, aldatzeari buruz, betiere egutegiaren segimendua eta ebaluazioa errazte aldera.

Konpromiso hori betetzeko, Gobernu Kontseiluak ekainaren 15an onartu zuen legegintza egutegiaren 2010eko lehen seihilekoaren jarraipen dokumentua; dokumentu horrek Gobernu Kontseiluak plangintza aldi horretan onartu behar zituen lege-proiektuen egoera ezagutzeko beharrezkoa den informazioa jaso zuen.

Legegintza egutegia onartu zenetik bigarren seihilekoa igaro denez, aldi horretarako legegintza-ekimenak bultzatu dituzten sailei informazioa eskatu zaie legegintza-ekimen horien egoera ezagutzeko, baita 2010eko lehen seihilekoan onartu behar baina Legegintza Egutegiaren lehen jarraipen dokumentuan zehaztutako arrazoiengatik atzeratu ziren legegintza-proiektuen egoera ezagutzeko ere.

Horri guztiari jarraiki, 2010eko bigarren seihilekoan Gobernu Kontseilura legegintza-ekimenak bidaltzea aurreikusi eta Legegintza Egutegian ekimenok sartu zituzten sailek Koordinazio Idazkaritza Nagusiaren esku jarri dute beharrezko informazioa, aldi horretarako programatu diren lege-aurreproiektuen zein aurreko seihilekoan burutzeke geratu ziren proiektuen egoeraren berri izateko. Horrekin batera, beste hiru legegintza-proiektu erantsi zaizkio Jaurlaritzaren araugintzaren planifikaziori, hasierako egutegian jaso ez zirenak: gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko azaroren 23ko 18/2008 Legea aldatzeko lege-proiektua, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari buruzko ekainaren 27ko 9/1997 Legea aldatzeko lege-proiektua eta Lan Harremanen Kontseiluari buruzko ekainaren 11/1997 Legea aldatzeko lege-proiektua.

Legegintza Egutegiaren jarraipen dokumentu hau Legebiltzarrera bidaliko da, aurreko jarraipen dokumentuarekin egin zen bezala, legegintza-ekimenaren arloan bultzatutako gobernu jarduera bat baita, Jaurlaritzak kudeaketa kontrolatzeko eta gardentasuna areagotzeko tresnak sustatzeko duen konpromisoaren esparru zabalagokoa.

Horren guztiaren ondorioz, Lehendakaritzaren proposamenez, eta aztertu ondoren, Gobernu Kontseiluak hauxe

ERABAKI DU

Lehena.- Legegintzako Egutegiari (2009-2013) sei hilean behin jarraipena egiteko agiria onartzea, eranskinean jaso bezala. (Eranskina: Legegintza Egutegiaren Jarraipena, 2010ko maiatzaren 17tik 2010eko azaroaren 17ra bitartekoa).

Bigarrena.- Legegintza Egutegian honako lege-aurreproiektu hauek gehitzea onartzea: gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko azaroren 23ko 18/2008 Legea aldatzekoa, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari buruzko ekainaren 27ko 9/1997 Legea aldatzekoa eta Lan Harremanen Kontseiluari buruzko ekainaren 11/1997 Legea aldatzekoa.

Hirugarrena.- Erabaki hau eta bere eranskina Eusko Legebiltzarrari bidaltzea, gobernu-jardunari eremu honetan egin beharreko segimendua egiteko, eta Eusko Jaurlaritzak 2009ko azaroaren 17ko akordioan, IX. Legegintza Egutegia onartzekoan, hartutako konpromisoa betetze aldera.

Horrela jasota gera dadin, eta bidezkoak diren ondorioak izan ditzan, ziurtapen hau ematen dut Vitoria-Gasteizen, 2010eko abenduaren 2an.

ERANSKINA

LEGEGINTZA-EGUTEGIAREN JARRAIPENA, 2010EKO MAIATZAREN 17TIK 2010EKO AZAROAREN 17A BITARTEKOA. IX. LEGEGINTZALDIA

1. LEHENDAKARITZA

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Udal Legearen proiektua.

a.1) **Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data:** 2010eko lehen seihilekoa.

a.2) **2010eko azaroko egoera:** 2010eko azaroaren 24ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu da Toki Administrazioarekiko Harremanetarako zuzendariaren azaroaren 15eko ebazpena, Euskadiko Udalen Legearen aurreproiektua jendaurrean jartzen duena.

a.3) **Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data:** 2011ko bigarren seihilekoa, udal hauteskundeak izateak eragina izango baitu legea izapidetzerakoan.

2. Berdintasunerako Emakumeen Euskal Kontseiluari buruzko lege-proiektua.

a.1) **Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data:** 2010eko lehen seihilekoa.

a.2) **2010eko azaroko egoera:** Berrikuspen aldian, gastu publikoa murrizteko iragarritako neurrien baitan organo berri gisa antolatze beharra dela-eta.

a.3) **Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data:** Etenda.

3. Zenbait lege aldatzeko lege-aurreproiektua, barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentzura egokitzea.

a.1) **Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data:** 2010eko lehenengo hiruhilekoa.

a.2) 2010eko azaroko egoera: 2010eko azaroaren 26an emango du irizpena Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak. Irizpena eman ondoren, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eman behar du txostena, bere esku baitago espediente osoa. Horren ondoren, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak nahitaezko irizpena eman beharko du eta Gobernu Kontseiluak onartu beharko du azken testua.

a.3) Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data: 2011ko lehenengo hiruhilekoa.

4. Otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerakoa, aldatzeko lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data: 2010eko laugarren hiruhilekoa.

a.2) 2010eko azaroko egoera: alegazio eta kontsulta aldian.

a.3) Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data: 2011ko lehen seihilekoa.

2. HERRIZAINGO SAILA.

1. Euskal Herriko Poliziaren Legea aldatzeko lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data: 2010eko bigarren hiruhilekoa.

a.2) 2010eko azaroko egoera: Poliziaren Legearen aldaketa lantzerakoan, koherenteagotzat jo da segurtasun publikoaren antolaketaren eduki guztiak testu bakar batean biltzea eta sistema komun batean egituratzea, gure ordenamendu juridikoan itxura batean inongo loturarik gabe, hainbat arau ildotan bilduta, ageri ziren hainbat azpisistema, guztiek azken helburu bera izan arren: Euskal Autonomia Estatuaren 17. artikulua araututako segurtasun publikoa.

Horrela, segurtasun publikoaren euskal sisteman eragile guztiak koordinatzeko politikak formulatzea eta sistemari eragiten dioten beste politika batzuk integratzea agintzen da. Planteamendu horren azpian, Polizia Legean aldatu beharreko alorrak (polizia estatutua, Poliziaren Ikastegia, udaltzaingoak) aldatzeko modua antolatzen da lege horren testuan.

Testua negoziatzen ari da segurtasun publikoaren alorrean zerikusia duten eragileekin.

a.3) Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data: 2011ko lehen seihilekoa.

a.4) Lege-proiektuaren izendapen berria: EAEko Segurtasun Publikoko Sistema Antolatzeko Legea.

2. Larrialdien eta Meteorologiaren Euskal Agentzia sortu eta arautzeko lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data: 2010eko bigarren hiruhilekoa.

a.2) 2010eko azaroko egoera: Legearen kontzeptua zabaldu egin zen hasieran eta, Agentzia sortzeaz gain, Euskal Herriko Polizia Ikastegiaren berrantolaketa ere bildu zuen, larrialdietarako prestakuntza ikastegiaren zereginen artean sartuz. Hausnarketa aldia bukatu ondoren, koherenteagotzat jo zen segurtasun publikoaren antolamendu eduki guztiak arlo hori osotasunean jorratuko duen testu batean biltzea.

Azkenean, atzeratu egin da erakunde berriak sortzea, Gobernu Kontseiluaren irizpideei jarraiki. Horregatik, ez zaio agentzia arautzeari ekingo EAEko Segurtasun Publikoko Sistema Antolatzeko lege-proiektuan.

a.3) Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data: Kendu egin da Egutegitik.

3. Larrialdiak Kudeatzeko Legea aldatzeko lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data: 2010eko hirugarren hiruhilekoa.

a.2) 2010eko azaroko egoera: Abenduan itxi nahi dute testua Sailean. EAEko Segurtasun Publikoko Sistema Antolatzeko Legearen behin betiko eraketarekin zerikusia du. Lege horren arau eta antolakuntza alorrak EAEko Segurtasun Publikoko Sistema antolatzeko lege-proiektuari egokitzeak atzeratu egin du legea onartzea, larrialdien azpisistema segurtasun publikoa osatzen dutenetako bat baita. Halaber, eragina izan du aurrekontuak direla-eta egokitzeak jotzeak legearen bitartez ez sortzea Larrialdien eta Meteorologiaren Euskal Agentzia. Ildo horretan, eta saila berregituratzea aukeratu denez, egokitu egin behar izan dira indarrean zeuden eta garatzen ari ziren arauak.

a.3) **Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data:** 2011ko lehen seihilekoa.

3. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA.

1. Lehiaren Euskal Agentzia sortzeko lege-proiektua.

a.1) **Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data:** 2010eko bigarren hiruhilekoa.

a.2) **2010eko azaroko egoera:** Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren aginduzko txostenaren eta Aholku Batzorde Juridikoaren aginduzko irizpenaren zain.

a.3) **Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data:** 2011ko lehenengo hiruhilekoa.

2. Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko Lege-proiektua.

a.1) **Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data:** 2010eko bigarren seihilekoa.

a.2) **2010eko azaroko egoera:** entzunaldiaren izapidean jasotako alegazio ugariak aztertzen ari dira; datorren urtarrilean behin betiko testua izateko aurreikuspena dago. Hori dela-eta uste da Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren aginduzko txostena 2011ko otsailean eta Aholku Batzorde Juridikoaren aginduzko irizpena 2011ko apirilean eman ahal direla. Aginduzko izapide horiek burututa, 2011ko maiatzean onar dezake Gobernu Kontseiluak testua.

a.3) **Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data:** 2011ko lehen seihilekoa.

3. Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko Legea aldatzeko lege-proiektua.

a.1) **Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data:** 2010eko laugarren hiruhilekoa.

a.2) **2010eko azaroko egoera:** 2010eko amaierako aurreikusi zen legegintza-proiektua bitan banatu da:



- Aldaketa mugatu bat, aurrekontu erregimenean sartzeko EAEko arlo publikokoak diren fundazioak eta partzuergoak. Aldaketa hori Aurrekontu Legearen proiektuan aurreikusitako legegintzarako eskuordetzaren babeseko Legegintza dekretu gisa izapidetuko da, sei hilabeteko epean.
- Aldaketa zabal bat, zenbait printzipio —egonkortasuna, urte anitzeko izaera, eta abar— eta horien ondorioak aurrekontuak lantzeari, burutzeari eta likidatzeari eranstea.

a.3) Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data: 2011eko lehen seihilekoa Legegintza Dekretuarentzat eta 2011ko bigarren seihilekoa bigarren lege-proiektuarentzat.

4. Partaidetutako erakundeen Aurrekontuen Araubideari eta kontrolari buruzko lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data: 2010eko laugarren hiruhilekoa.

a.2) 2010eko azaroko egoera: Ekin zaio izapidetzeari, aurretiko onarpen-agindua eman baita. Beraz, testua aginduzko txostenak egin behar dituzten organo eskudunei bidali zaie, baita foru aldundiei, Eudeli eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ere, egoki irizten dieten alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten, hala dagokionean.

a.3) Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data: 2011ko lehen seihilekoa.

4. ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

1) Euskadin Etxebizitza Eskuratzeko Eskubideari buruzko Lege Proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data: 2010eko laugarren hiruhilekoa.

a.2) 2010eko azaroko egoera: Laburbilduz, arauaren konplexutasunak eragin du arau hori egiteko aurreikusi ziren epeak izugarri luzatzeak. Eudelek eskatuta Etxebizitzaren Aldeko Euskal Ituna izenpetzea bi hilabetez atzeratzeak ere araua idaztea atzeratu du, hitzartutako akordioak biltzen baititu arau horrek.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak badu lege-aurreproiektuaren zirriborro bat, administrazio izapidetzeari ekiteko aukera ematen duena; eta haren arabera,

izapidetze horrek bederatzi eta hamabi hilabete bitarteko epea beharko du eta, ziurrenik, 2011ko bukaera aldera aurkeztuko da Legebiltzarrean.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak uste du abenduaren hasieran ekingo diola jendaurreko erakustaldiaren izapideari eta horrela gai horren eztabaida hasiko dela gizartean.

a.3) Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data: 2011ko laugarren hiruhilekoa.

a.4) Legearen izen berria: Etxebizitza Legea.

5. ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETARAKO SAILA.

1. Droga-mendekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzko 18/1998 Legea aldatzeko lege-proiektua, tabakoaren gaiari dagokionez.

a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data: 2010eko lehen seihilekoa.

a.2) 2010eko azaroko egoera: Gobernu Kontseiluak 2010eko irailaren 7an onartu zuen.

2. Euskadiko Kooperatibei buruzko 4/1993 Legea aldatzeko lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data: 2010eko bigarren seihilekoa.

a.2) 2010eko azaroko egoera: Kooperatiben arloa ordezkatzeko duten erakundeek Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari jakinarazi zioten lege proiektu honen izapideak atzeratzea nahi zutela sektorearen ahaleginak oraingo ekonomia krisialdia gainditzen erabiltzeko.

a.3) Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data: Etenda.

3. Gizarteratzeko eta diru sarrerak bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea aldatzeko lege-proiektua.



a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data: Lege proiektu hau Gobernu Kontseiluak Legegintza Egutegia onartu ondoren sortu zen eta Legegintza Egutegiaren jarraipen honi atxiki zaio.

a.2) 2010eko azaroko egoera: 18/2008 Legea aldatzeko lege-proiektuaren zirriborroa Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena jasotzeko zain dago.

a.3) Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data: 2011ko lehenengo hiruhilekoa.

4. Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari buruzko ekainaren 27ko 9/1997 Legea aldatzeko lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data: Lege proiektu hau Gobernu Kontseiluak Legegintza Egutegia onartu ondoren sortu zen eta Legegintza Egutegiaren jarraipen honi atxiki zaio.

a.2) 2010eko azaroko egoera: Zirriborroaren testua egiten hasteko fasean.

a.3) Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data: 2011ko bigarren seihilekoa.

5. Lan Harremanen Kontseiluari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Legea aldatzeko lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data: Lege proiektu hau Gobernu Kontseiluak Legegintza Egutegia onartu ondoren sortu zen eta Legegintza Egutegiaren jarraipen honi atxiki zaio.

a.2) 2010eko azaroko egoera: Zirriborroaren testua egiten hasteko fasean.

a.3) Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data: 2011ko bigarren seihilekoa.

6. INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

1. Nekazaritza eta Elikadura Politikari buruzko Legea aldatzeko lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data: 2010eko lehen seihilekoa.<0}

a.2) 2010eko azaroko egoera: Aginduzko txostenen zain. Hasierako proiektuan eragina izan du Zerbitzu Zuzentarauari egokitzeak.

a.3) Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data: 2011ko lehen seihilekoa.

2. Paisaia Antolatzeko lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data: 2010eko laugarren hiruhilekoa.

a.2) 2010eko azaroko egoera: Onartu da prozedura hasteko agindua. Proiektua izapidetzerakoan herritarren partaidetza zabala izango dela aurreikusten da; beraz, ezingo zaio hasieran aurreikusitako epeari eutsi.

a.3) Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data: 2011ko bigarren seihilekoa.

3. Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Batesteko Lege Orokorra aldatzeko lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data: 2010eko laugarren hiruhilekoa.

a.2) 2010eko azaroko egoera: Proposatutako aldaketaren tamaina dela eta, egokiagozat jo da aurreko legea indargabetuko duen beste lege bat egitea.

a.3) Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data: 2012ko lehen seihilekoa.

7. KULTURA SAILA.

1. Agiritegiei, Agiriei eta Agiri Ondareari buruzko lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data: 2010eko bigarren hiruhilekoa.

a.2) 2010eko azaroko egoera: Hasieran egokitzen jo zen aurreko legegintzaldian izapidetutako lege-proiektuari berriro ekitea eta Aholku Batzorde Juridikoaren irizpen alditik izapidetzen jarraitzea (orduan eten baitzen izapidetzea). Geroago, ordea, hasierako jarrera berriro aztertu du Kultura Sailak. Horregatik, lege-proiektuaren zirriborro berria lantzen ari da, Euskal Autonomia Erkidegoko agiritegi sistema osoa arautzeko. Horrek, hasieratik izapidetzen hastea dakar eta aurreikusitako legegintza egutegian atzerapena eragin du.

a.3) Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data: 2012ko lehen sei-hilekoa.

2. Kultur Ondasun Sailkatua izendatzeari buruzko lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data: 2010eko laugarren hiruhilekoa.

a.2) 2010eko azaroko egoera: Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 10.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, "salbuespenez, ondasun mota edo era bati eman ahal izango zaio kultur ondasun sailkatuaren maila, eta izendapen horik legez egin beharko da, nolahi ere".

Horren arabera, Kultura Sailak proposamen bat erantsi zion legegintza egutegiari 2010eko azken hiruhilekoan kultur ondasun sailkatuen izendapen orokorrari buruzko lege bat onartzeko.

Azken urte eta erdian bildutako esperientziak hasierako proposamena berriz aztertzea behartu du Kultura Saila, eta oraingoz ez da lege hori egingo.

Legegintza ekimen bat lehen aipatutako 10.3 artikuluan ezarritako terminoetan burutzea komenigarri den berriz aztertze aukera baztertu ez bada ere, Kultura Sailak erabaki du oraingoz ez erabiltzea ez ohiko izendatze-bide hori eta, horren ordez, kultur ondasun sailkatuen mailak gehiago babestea Euskal Kultura Ondareari buruzko Legean aurreikusitako ohiko prozeduraren bitartez.

a.3) Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data: Kendu egin da Egutegitik.

3. Gazteen Euskal Legearen proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data: 2010eko laugarren hiruhilekoa.

a.2) 2010eko azaroko egoera: Kontsulta fasea zabaldu zaie foru aldundiei eta EUDELI.

a.3) Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data: 2011ko lehen sei-hilekoa.

4) EAEn dopatzearen aurkako Lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari igortzeko legegintza-egutegiko gutxi gorabeherako data: 2010eko laugarren hiruhilekoa.

a.2) 2010eko azaroko egoera: Jendaurreko informazio-aldian. 2010eko azaroaren 29ko EHAA n argitaratu da 2010eko urriaren 5eko Ebazpena, Kiroletako zuzendariarena, Kiroleko Dopatzearen aurkako Lege-aurreproiektuaren entzunaldi-izapidea egiteko dena.

a.3) Gobernu Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data: 2011ko bigarren seihilekoa.